

BERRIGARA

35. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1993, otsailak 19

**FEDE
HEZITZAILE
IKASTAROA
ELIZAK
ANTOLATUTA**

**GARTZELA
ZAHARRARI
IRTENBIDEA
TOPATU
NAHIAN
UDALA**

KIROLAK

**IKUSMIN
HAUNDIA SORTU
DU ETXANIZ ETA
ZEZEAGAK
JOKATU BEHAR
DUTEN
PARTIDUAK**




**ETXETIK KANPO BAZKALDU
BEHARRA DAGOENEAN**

Guipuzcoanon euskera aurretik

BANCO

Guipuzcoano

93ko ezkongaiak



BIKOTE SARTUAREN ZAT ERREGALIAK 93KO EZKONGAIEN LEIHAKETA

ERREGALIAK

SENARGAIAREN JANTZIA
ANDREGAIAREN JANTZIA
ERAZTUNAK ETA ZILARREZKO 13 EZKON DIRU
EZTAI EGUNERAKO CAVA
SUKALDERAKO MAHIA ETA 4 AULKI
EROSKETA TXARTELA
ARGAZKI ERREPORTAIA
PALMA DE MALLORCARA BIDAIA
EROSKETA TXARTELA

ETXEAK

AUZMENDI JOSTUNDEGIA (Donostia)
BAYON (Donostia)
KAREAGA (Eibar)
CODORNIU
IKER (Mondragón)
SOFAS LANDETA (Azpeitia)
FOTOKAI (Donostia)
EROSKI BIDAIAK (Donostia)
GANZARAIN HALTZARIAK (Azkoitia)

ZOKKETA: OTSAILAREN 26an

1994ko Martxoaren 31 baino lehen ezkontzeko asmotan bazara, bete orri hau eta bidal ezazu Otsailaren 26a baino lehen LOIOLAKO HERRI IRRATIA • 93KO EZKONGAIK • 20720 AZPEITIA (GIPUZKOA) helbidera.

SENARGAIA _____

(izen deturak)

(helbidea)

(herria)

(telefonoa)

ANDREGAIA _____

(izen deturak)

(helbidea)

(herria)

(telefonoa)


Ezkontza eguna (gutxi gora behera)

HERRI Irratia



Radio POPULAR
GIPUZKOA

BERGARA BOLTSAK



✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.

✓ Denetarikoko konfekzio industrialak

✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA

Biltoki

BETI ZURE ZERBITZURA!



xey

SUKALDE ETA BAINURAKO
ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE
HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G
☎ 76 34 00



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN
BIDEOAK, HI-FI MATCH-LINE
EKIPOAK, 100 HERTZIOTAKO
DIGITAL SCAM TB-K

BARRENKALE, 6
☎ 76 25 96

dekorazioak

GAZTE ESTILOKO
ALTZARIAK, ALFOMBRAK,
LARRUZKO SOFAK,
DEKORAZIORAKO
OSAGARRIAK

SAN MARTIN PLAZA, 2
☎ 76 43 51

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara
Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jauriaritza

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkoroberezibar

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Edurne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Itzi Erafia, Gorka Elorza eta
Alex Labaien

Kolaboratzaileak: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkoroberezibar, J. M.
Elxepuru, J. Oregi, A. Urzelai,
Maripi Laskurain, N. Alzelai,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi,
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,
Asier Madinabeitia, Josune Iñarra
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A.
Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
Garzia, D. Santos, P. Retolaza,
Kiñu eta Pol-Pol Mendizale
Taldea.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:


BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek

**Eusko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du**

PROTAGONISTAK

EURIRIK EZA

Astekoa baino ge-
hiago, hileko protago-
nista dugu euririk eza.
Aste honetan euri tan-
taren bat jauzi den
arren, lehortea azken
urteotako markak
hausten jarraitu du.

Luis Mari Agirrek
eman dizkigun datuen
arabera, 1984tik hona
aurtengoa izan da ur-
tarrilik lehorrena. 8.7
l./m2ko besterik ez dir-
a jaso pasa den urta-
rrilean, oso gutxi urte
sasoi honetarako (86-
an adibidez 375 l./
m2ko jaso ziren eta
gutxien, iaz, 73 litro).

Temperaturari da-
gokionez, bataz beste-
koa 8.8 gradukoa izan
da (88an 9.59 graduko



bataz bestekoa izan
genuen). Aurtengo ur-
tarrilean, berriz, 14.9
izan da temperaturik
altuena eta 3.51 baxu-
ena. Azken eguraldi
pronostikoek diote-
nez, ez da aldaketarik
espero eta datozen
egunotan zerua laiñoz
estalita izango da eta
hegoaizeak joko du.

**Azken 10 urteetako urtarrilik
lehorrena (9 litro)**

ITURRI ONETIK

Aurten izango da Gorlako Igoera

Aurtengoan bai. Bergara Racing Club eta Udalak
antolaturik, irailaren 12an, Gorlarako Kotxe Igoera
jokatuko da. Gogoratu behar da iaz ez zela jokatu
bidearen egoera txarragatik eta orain 2 urte
Angiozarren jokatu behar izan zela arrazoi beragatik.
Orain, arazo guztiak gaintu ondoren, Espainiako
Txapelketarako erreserbako lehen proba izango da.
Txapelketako 8 probetako batek huts egin ezkeru,
Gorlako proba puntuagarria izango litzateke.

ESAN DUTE

"2000. urtean Euskal
Herria herri bat izaten
jarrai dezala da nire
nahia eta alde
horretatik gure
betidaniko
nortasunaren eta herri
izakeraren oinarri eta
funtza den
hizkuntzari,
euskarari, derrigorrez
eutsi behar diogu".

MIREN GOÑI
Eusko Ikaskuntzako
Antropologia eta
Etnografia Saileko
buru
EUSKADI IRRATIA

"Orain dela urtebete
sartu nintzen Pol-Pol
Argazki Taldean
baina aurretik
Arrasateko ASA
taldean ibili nintzen.
Nire ustez,
desberdintasun
haundiak daude bien
artean. Pol-Polekoek
urte asko daramate
argazkiak lantzen.
Materiale aldetik ere
oso aurreratuta
daude. "

JOSE LUIS FEO
Pol-Pol Argazki
Taldekidea
ARRASATE PRESS

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-Denda
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

EZPELETA
etxea
Harizko eta kotoizko
goimailako izara eta
mantelak
Barrenkale 44 BERGARA

**EL GUARDAESPALDAS**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00., 19.30 eta 22.30.

Igandea: 17.00., 19.30. eta 22.15.

Astelehena: 19.30.

**LA ISLA DEL TESORO**

Igandea: 11.30.

**EXITO A CUALQUIER PRECIO**

Osteguna: 19.30.

Zinea▼▼ **Kevin Costner** eta **Whitney Houston** kantariak

protagonizatutako istorio erromantiko honek sekulako arrakasta izan du ikusleen artean.

Lawrence Kasdan-ek (*Grand Canyon*) idatzita, pentsa dezakezuenez, Costner zaindu behar duen izarrak maiteminduko da...▼▼ Hainbat bertsio ezagutu ditu literatur klasiko honek eta beti ere eskertze-koa da Long John Silver (**Charlton Heston**) edota Blind Pew gaiztoaren eskutik abentura exotiko hau berrikustea.▼▼ **James Foley**k zuzendutako filme honek izugarritzko izar sorta dakarkigu (**Jack Lemmon, Al Pacino, Ed Harris** eta **Alec Baldwin** tartean) eta bertan lan munduan eman daiteken kompetentzia sutsuaren istorioa kontatzen zaigu.**Erakusketak**▼ **J.A. Borobiaren** margo erakusketa Nahikarin.▼ **Juan Jose Altuna** margolari bergararrak bere lanak ikusgai ditu Kultur Etxean astebukaera honetatik aurrera.**Deiak**▼ **Korrika 8aren** antolaketa buruzko bilera egingo da hilaren 18an 7.30 etan Kultur Etxean. Talde guztiei dei egiten zaie.**Farmaziak**▼ **Larunbata 13:** Estella.▼ **Igandea 14:** Estella.▼ **Astelehena 15:** Mozos.▼ **Asteartea 16:** Camacho/Ruiz (Arrasaten Gaez).▼ **Asteazkena 17:** Puy/Morales.▼ **Osteguna 18:** Guallar/Azkoaga.▼ **Ostirala 19:** Estella/Corcuera.**Ogia**▼ **Igandea 14:** Konde.**TOKI-ONA****Bodegoia-Taberna**Egunerako janariak / Txiteizotzak
Kazalotxoak / Txabiernoak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

MUGICA

Goxotegia

Artekale, 3
☎ 76 10 34pastelak,
errellenoak,
tostoiak,
tartak...**anezka**Udazkenerako oihalak
eta lenzeria

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25

Ikuskizunak

▼ **Hitzaldia.** "Convergencia europea: esfuerzos y costes sociales" izeneko hitzaldia emango du Karlos Abaituak asteartean, hilak 16, 8etan UNEDen. Bergara eta Arrasateko Artziprestaldeko Helduen Batzordeak antolaturik.

Kirolak

▼ Eskubaloia:

- **Bergara-Tolosa** (kadete mutilak). **Larunbatean** 16.00etan.
- **Bergara-Urola** (kadete neskak). **Larunbatean** 17.15etan.

▼ Pelota:

- **Bergara-Antzuola** (gazteak). Promozio Txapelketa. **Larunbatean** 10.30etan Elorregiko frontoian.
- **Bergara-Azkoitia** (Alebin, Infantil eta kadeteak). Kluben arteko azkeneko fasea. **Igandean** 11.15etan Udal Pelotalekuan.



Eskubaloiko kadete mutilak Tolosaren aurka jokatuko dute larunbatean (16.00).

Aukeran

▼▼ **Jardun elkarteak antolatutako Komiki Lehiaketara** presentatutako lanak ikusteko aukera izango duzue hurrengo egunotan. Astebukaera honetan eta hurrengoan, Kultur Etxeko 2. erakustokian jarriko dira komikiak.



▼ Futbola:

- **Bergara-Trintxerpe** (Preferente maila). **Igandean** 16.15etan Agorrosinen.
- **Bergara-Lizardi** (2. mailako jubenila). **Larunbatean** 15.45etan Ipintzan.
- **Bergara-Intxaurre** (2. mailako kadeteak). **Igandean** 11.00etan Ipintzan.
- **Bergara-Oiartzun** (Infantilak). **Larunbatean** 11.00etan Ipintzan.

5

PROFESIONALAK

- **Urionaguena-Galarza / Etxaniz- Zezeaga** (ETBK zuzenean)
- **Ansotegi-Andueza VI.a / Arteaga-Urrutia.**
- **Gabilondo-Alberdi III.a / Badiola II.a-Andueza**

Larunbatean, 16.30etan Udal Pelotalekuan.

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ **Motoren bobinaketa**
 - ✓ **Era guztietako instalakuntzak**
- Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48



LASA JATETXEA

Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29

1992. urte famatua

1992 urte "famatu" eta "glorifikatua" joan zaigu eta une honetan balantzea egiteko garaia da, hainbeste Olinpiada, Tour, Expo, etab. Gobernu Zentraleko jaunek adierazten zuten bezain probetxugarri gertatu zaizkigun galdera egiteko.

Bada, behin eta berriz geure buruari galdera egin arren, lortzen ditugun erantzun bakarrak honakoen antzekoak dira:

-Populazio aktiboaren artean, Autonomi Elkarteetan %20ko langabezia dago eta Nafarroan %10ekoa, zenbait aldetan %30era iritsiz.

-Gazteen artean langabezia %48,8koa da, hau da Euskadin bi gaztetatik bat lanik gabe dago.

-Hego Euskadin 250 lanpostu galtzen dira egunean.

-Acenor-ren desmantelamendurak 2.000 lanpostu galtzea ekarriko du eta AHV ixteak 3.000 langabe gehiago ekarriko ditu eta zeharka 20.000 lanpostu galtzea.

Eta beste, hainbat eta hainbat datu eman ahal izango genituzke bigarren ekonomi birmoldaketa bat ezarri nahirik dabilzala konturatu

arte; duela gutxi (1986) langabezi kopurua 170.000n gehitzea ekarri zuen lehena (birmoldaketa) jasan ondoren.

Eta guzti hau gure agintari maitteiei eskertu behar diegu:

-PSOeri, azken urte hauetan hain gestio egokiak burutzeagatik (EEE, Maastrich, 92ko ekintzak, etab...)

-PNVri, buztana hankartean sartu eta gurekin nahi zutena egiten lagatzeagatik.

Eta zeintzu izango dira kaltetue-nak guzti honekin?

Argi dago kale gorrian geratu diren pertsonak izan direla galtzaile, baina, zer gertatzen da eskuetatik kentzen ari zaizkigun lanpostuetarako prestatzen ari garen ikasle gazteekin? Zer geratzen zaigu? Zer da egin dezakegun bakarra?

Begibistakoa da: Borroka egin!

Borroka egin: gure industriaren alde, lanpostua Euskadin izatearen alde,... azken finean, gure etorkizunaren alde! eta horregatik diogu:

INDEPENDENTZIA ala MISERIA

Jarrai

Eskerrak emanaz

Uberako jaiak igaro berriak direnez, eta bertan parte hartu duten guztiei eskerrak emateko asmoarekin idazten dugu eskutitz hau.

Eskerrikasko: Lokatza Ziklismo Eskolari, DYari, Bolintxo Okindegia-ri, eta batez ere, Luis Abajo Kultur zinegotziari.

Uberako Jai Batzordea

Tiira ba!



Josu Okino

Karnabaletako programa prest

Prest dago jadanik, aurtengo aratuzteetarako Udalak prestatu duen egitaraua. Larunbatean, hilak 20, mozorro jantzien lehiaketa eta Txatanuga Futz Band Orkestarekin dantzaldia izango dira. Igandean, Udal Musika Bandaren kontzertua, magia saioa eta Oxirondo taldeak antzeztutako "Degustacion de entremeses" izeneko antzerki lana. Eta asteartean, azkenik, mozorrotutako haurren kalejira, Drindots taldeak alaitutako berbena eta, ohizkoa den moduan, sardinaren entierrua.

Fede Heziketa ikastaroa antolatu du Artziprestaldeak

Klaseak Santa Marinako katekesi lokaletan emango dira

Elizbarrutiko egitarauari jarraituz, Fede Hezitzaile Eskola eratu berri du Bergarako Artziprestaldeak. Eskola honek emango duen heziketa bi ikasturtekoa izango da eta hilean bi saio izango dira ostegunetan, saio bakoi-tza bi ordukoa.

Eskola hau pastoralgileei zein edozein kristauri zuzenduta dago eta 37 gai landuko dira denera eta bere antolatzaileen esanetan, "Bergarako zenbait sektoretan zegoen demandari erantzuna emateko sortu da".

Gaiak lantzeaz gain, gure errealitatea aztertu eta errealitate horri ikuspegi kristau batetik nola aurre egiten ere aztertuko da. 2 zatitan emango dira gaiak (martxotik ekainera eta irailetik martxora),



Xobier Zubizarretak eman zuen ikastaroen berri ostirolean prentsaurrekoan.

matrikulak 2.000 pta. balioko du eta izena emateko azken eguna otsailaren 28a izango da.

Ikastaroari martxoaren 11n emango zaio hasiera eta goizez zein arratsaldez eta euskaraz edota erdaraz jasotzeko au-

kera izango da matrikula egiterakoan.

Klaseak Santa Marinako katekesi lokaletan (Boni Laskurain 5, behea) izango dira eta lehenbiziko hiru gaiak Pako Etxebestek emango ditu.

Festagirotan Muriñondon

Eguraldi ederrak ere laguntzen zuelarik, jende ugari bildu zen astebukaeran San Blaseko jaietako elizkizunetara eta egitarauko beste ekintzetara. Larunbatean jokaturako V. Mus Txapelketan 27 bikote aritu ziren eta Luis Aranzabal "Manoleta" eta Andres Uribe "Oitxurri" osintxuarrek irabazi zuten. Bernardo Alberdi eta Enrike Fernandez txapeldun ordeak izan ziren eta Aristi-Arzelus eta Kristobal Zabaleta-Boni Ibabe bikoteak hirugarren eta laugarren geratu ziren. Igandean, berriz, 80 lagun inguruk hartu zuten parte trabesia modura antolatutako Mendi Bizikleta proban.



ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

- Ateak, zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioa
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

FERNANDEZ



**Oihal puskak
Oihalak**

San Antonio 3
Tfnoa: 76 22 93


Ibargaral 2
Tfnoa: 76 53 22

Arrantza lizentziak Oilagorran

Beste urte batzutan bezala, arrantza lizentzia egiteko interesa dutenek Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkartera (Irizar kalea, z/g) jo dezakete otsailaren 16tik 25era bitartean, astelehenetik ostiralera arratsaldeko 7 t'erdietatik 9etara. Euskal Autonomi Elkartea, Nafarroarako edota Errioxarako nahi izanez gero, prezio ezberdinak izango dira eta 14 urtetik beherakoek prezio bereziak izango dituzte Informazio gehiago nahi izanez gero, 76 20 45 telefono zenbakira jo dezakezue.

Karnabalak Jubilatuetan

Jubilatueta bazkari bat antolatu dute karnabal martitzenerako, hilak 23. Prezioa 1.600 pta.koa izango da, plaza mugatuak dira eta izena emateko azken eguna otsailaren 17a. Bazkalostean, 5etatik 8etara dantzaldia izango da Musical Araba taldearekin eta tartean, 5 t'erdietan, mozorro jantzien lehiaketa.



Astelehenetik Artekalea trafikora itxi da.

Artekalea 5 hilabetez itxita

Udaletxean burutzen ari diren obrak direla medio

Astelehenetik eta datozen 5 hilabetotan itxita izango da Artekalea Udaletxean burutzen ari diren berrikuntza lanengatik. Udaletxeko aurrekaldeko fatxadan dagoen moduko burnizko estruktura atzekaldera eramango da berrizte lanekin jarraitzeko eta kalea ixtea erabaki da kotxe zein oinezkoen segurtasunerako.

Udaletxeko berrizte proiektoren arabera Goiko eta Beheko plazak eskilara batzuren bitartez elkartuko dira eta eskilara horien azpian udal artxibategia kokatuko da.

Udaletxeak trapezio itxura hartuko du eta horretarako argazkian ikus daitekeen *hutsune* hori *beteko* da. Artekalea ixteak, dudarik ez, gaur herrian dagoen trafikoaren problematika gehituko du, Barrenkalea ere itxita baitago bertako hainbat fatxadaren berrikuntza egiteko eta apiril aldean obrak amaitu arte ez da zabalduko.

Artekaleak itxita jarraitzen duen bitartean Azkoitia edota Elosu aldera doazenek Mahasterreka edota Barrenkaletik gora hartu beharko dute Gorlarako bidea.

FOURNE
Merzeria - Lenzeria
D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

LIZAR
Altzariak
Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

LAZKANO
Oinetakoak
Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta Mutil
Irizar 3 Ibargarai 8
Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73

IZARRHOTZ
IZOKIAK
Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22



Gartzela Zaharrari irtenbidea aurkitu nahi dio Udalak

Gartzela Zaharra bete nahian

Pol-Pol Argazki Taldea bertara joan daiteke

Udala, Gartzela Zaharrari irtenbide bat eman nahian, bertan kolektibo edo talde kultural ezberdinak kokatzeko aukera aztertzen ari da azkenaldian, joan den urteko urtarrilean inaguratu ondoren. Orain dela gutxi, esaterako, Pol-Pol Argazki Taldeko kideak udal ordezkariekin izan ziren gartzelako gelak ikusten.

Luis Abajo Kultur zinegotziaren esanetan, "oraindik ez dago ezer definitiborik eta aukera ezberdinak aztertzeari ekingo diogu. Herriko tzenbait talderentzako koka-

lekuak bilatzen ari gara eta gartzelan sartzen ez baditugu posible litzateke ideien lehiaketa bat konbokatzea".

Aurretik margolariak horra joateko aukerei buruz ere hitzegin zen. Baina hauei ez zitzaien tokirik aproposena iruditu. Luis Abajok dioen moduan, "itxura denez, ez zen beren gustokoa, gela txikiak eta argi gutxi sartzen delako. Gainera kartzelak oraindik ez du berogailurik, hotz haundia egiten du neguan eta arazo hori konpondu beharra daukagu lehenbizi".

Euskal Eskola Publiko berriaren alde

Denon artean kolektiboak konbokatuta, larunbatean, hilak 13, Euskal Eskola Publiko berria defendatzeko 5etan Bilbon egingo den manifestazioara joateko autobusak antolatu ditu Aranzadi Ikastolak. Irteera arratsaldeko 3retan izango da Beheko Estaziotik. Besteak beste, Ikastolen Elkarte, E.H.U.-U.P.V., FAPAK Eskola Publikoetako Gurasoen Elkarte, STEE EILAS, LAB edota LABek osatzen dute *Denon artean* kolektiboa.

Irrati aukerak aztergai

Txapa Irratiak antolatuta ostegun arratsaldean *Irrati libre* eta udal irratiak izeneko mahai-ingurua izan zen UNEDen.


Bertan, Hernaniko Molotov irrati libre, Oñatiko Udal irrati, Txapa Irratia eta Udaleko ordezkari bana izan ziren hizketan.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE



GAZTELU

Burdinaki denda

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

TXIPIRON

Saltsa guztietan

Sorrera

Txipiron elkarteko bazkide guztiak kuadrila berekoak dira. Eta sortu ere horrela sortu zen, noski. Kuadrilakoen artean pentsatu eta egin. Gainera, beraien arteko elkarte bat denez, ez dute kuadrilakoa ez denik onartuko bazkide bezala.

Elkarte hontan 29 bazkide dira, eta lehen aipatutako arrazoiengatik, ez dago inor sartzeko listan zai. 29 bazkide hauek 40 urte inguruan dabilta. Beraz, elkarte gaztea da hau.

Diruak

Diru kontutan sartzten bagara, esan beharrekoa da, hauek ere ez direla makalak jan eta edanean! Urtean kontsumoan bartzten duten diru kopurua 1.200.000 pztatakoa da gutxi gorabehera. Hortaz gain, Txipiron elkartean

ordaintzen duten urteko kuota 18.000 pztakoa da. Dauzkaten falten batzbestekoa %3 a da.

Aipatzekoa da elkarte honetan ez dagoela presidenterik. Zuzendaritza kolejiatua deiturikoa bezala funtzionatzen dute. Hartzen dituzten erabakiak denen artean hartutakoak izaten dira.

Proiektuak

Sukalde kontutan sartuaz, Txipiron elkarteko sukaldea aldatzeko proiektutan dabilta. Oraindik ez da gauza erabat zurrura, baina seguraski egingo dute. Momentu honetan daukaten sukaldea elektrikoa da. Sukalde honek arazo ugari ematen dielako dute al-



Argazkia aspaldikoa da eta bertan, Txipironeko kide batzuk ikus ditzakezue

dik ez da gauza erabat zurrura, baina seguraski egingo dute. Momentu honetan daukaten sukaldea elektrikoa da. Sukalde honek arazo ugari ematen dielako dute al-

datzeko asmo hori.

Sukaldari trebeak ere baditugu Txipiron elkartean.. Lasa bertako bazkide dugu. Hizozkailuan berak gertatutako janak daude razioka konjelatuak.

Honela, edozein egunetan norbait jatekorik gabe eta goseturik doanean, ratio hauek batera, mikroondasean berotu, eta bapo!

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1979an.

BAZKIDEAK: 29.

HELBIDEA: Koldo Eleizalde, 3.

PRESIDENTEA: Ez dago.

ELKARTEAREN EGUNA: Urtarrileko azken larunbata.

URTEKO KUOTA: 18.000 pzt.a.

Ainboa Lete

SOLOZABAL AUTOESKOLA

TRANSPORTISTA IKASTAROA 1993

- Merkantzia eta bidaiarien naziobarneko eta nazioarteko titulua eta agentzia
- Interesatuek jarritako ordutegia. Asteburuak
- Kamioidun eta garraiolarien lanbide heziketarako eskola espezialdua

EDOZER GAUZA GIDATZEN IKAS EZAZU

Toribio Etxeberria, 5 EIBAR ☎ 70 23 84

Etxezarreta, 15 ORDIZIA ☎ 16 12 21

ETXAGI

Jatetxea

Afariak - Bataioak

Jaunartzeak

Eguneko menua

Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

FANCY

GAZTEEN MODA!

Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

Beti esan ohi da bazkaltzeko orduan amaren sukaldea dela onena, baina jende askok jan behar izaten du astean zehar etxetik kanpo eta tabernak, eskola eta lantegietako jangelak etab. izaten dira ume, langile, etab. en jatorduak betetzen dituztenak. Jende multzo handi honi bazkaltzen emateko prezioari ere begiratu behar zaio, eta egon garen jangela edo taberna guztiak prezio aldetik nahiko merkeak dira.



Etiket kanpo bazkaltzen

Etxetik kanpo bazkaltzen dutenek aukera asko dituzte Bergaran: eskoletako jatetxeak, lantegietakoak, tabernetakoak... Egunero kanpoan bazkaltzen dutenen kasuak (eskoletako eta lantegietako komedoreetan bazkaltzen dutenenak batez ere) azaltzen dizkizuegu jarraian.

Ikastetxeetako jangelak

Bergaran mota hone-

tako lau jangela daude eta, denera, irakasle eta ikasleen artean 260 pertsona inguru hurbiltzen dira.

Zaharrena San Martin eskola publikoko jangela da, bertara ikastetxeko ikasle eta irakasleez gain Aransgui eskolakoak, ASPACEko irakasleak eta Bergarako edozein ikastetxeko ikasleak joan daitezke. Sukaldean bi emakume ari dira lanean, Arantxa Kortazar eta Maria Asuncion Guridi, me-

nua nahiko bariatua da eta beti gauza ezberdinak ipintzea kontutan edukitzen da.

Aranzadi Ikastolak ere badu bere jangela, hauek ez dute sukalde propiorik eta bazkariak **Auzolagun** enpresaren kontu joaten dira. Egunero 16 ikasle eta bi irakasle bazkaltzen dute, bazkariaren prezioa 490 pezetakoa da eta eguerdiko 12 t'erdietan bazkaltzen dute. Haurtzandegiak ere eskaintzen die bere

umeei zerbitzu hau eta hona ere **Auzolagun**ek eramaten du bazkaria. Haurtzandegian adina garrantzitsua da, urtebetez berakoez etxetik eramaten baitute bazkaria.

Prezio aldetik ikastolaren parekoa da (450 pzt.), baina mefienda prezioaren barruan sartzen da. Mariaren Lagundiak bere jangeletan egunero 50 ikasle hartzen ditu, hauek ere ez dute sukalde propiorik eta Arratibel enpresak ekartzen

die bazkaltzekoa. Hemengo prezioa hilabetean 7.300 pezeta dira eta jatordua ordubatean eta ordubata t'erdietan izaten da.

Lantegietako bazkariak

Begarako 3 enpresak ematen die euren langileei zerbitzu hau: Bergarako Altos Hornosek, Fagorrek eta Dikarrek. Antzuolako Matz Errekak ere eskaintzen du zerbitzua.

Begarako Altos Hornosen hiru sukaldari daude, Carolina Aranzabal, Pilar Umerez eta Antonio Urzelai. Langileek egunero 3 edo 4 plater dituzte aukeran eta 150 pezeta ordaindu behar izaten dute, falta dena enpresak ordaintzen du-elarik.

Fagorreko langileek ere badute zerbitzu hau, Fagorreko jangeletan 3



pertsona aritzen dira lanean, Jon Lizeranzu, Marisa Karasatorre eta Mari-

je Perez, egunero 90 pertsoneri ematen die jaten. Egunean menu bakarria

jartzen dute, baina Marijek dioen moduan "batzuei menu espeziala

J. M. Larrañaga

San Martin ikastetxeko komedoreko arduraduna

- Zenbat jende joaten da zuen komedorera bazkaltzera?

- Gure eskolatik 70 ume joaten dira, ikastolatik beste 17, Arans gutik 16, gero 30 bat irakasle, danera 140 pertsona inguru.

- Ze instituzioren menpe dago zuen komedorea?

- Hezkuntza ordezkari-tzaren menpe dago, lehen komedore komarkal moduan funtzionatzen zuen. Lehen Lanbide Hezkuntza

Eskolatik eta Institutotik ere etortzen ziren, baina ordutegi aldaketarekin ez dira etortzen. Lehen bazkaltzeko bi turno egoten ziren, baina orain bakarria dago.

- Zenbat kostatzen da hemen bazkaltzea?

- Ordezkaritzak eguneko eta ikasle bakoitzeko 65 pza ordaintzen ditu. Hemengo ikasleek hilean 3000 pza ordaintzen dute, beste ikastetxeetakoek 6.000 pza eta gero irakasleek 7.500 pza.

- Umeak gustora daude?



- Danetik dago, ikusten da batzuk etxean ez daudela ohituta denetatik jaten eta gurasoek galdetzen digute ea nola jaten duten. Arazoak ere izan ditugu umeak jatera behartzerakoan, kontutan eduki behar da hona 3 urtetik hasita etortzen direla umeak.

- Kanpotik etorralteke jendea bazkaltzera?

- Ez, orain klaustroak erabaki du bakarrik ikasleak eta irakasleek onartzea.

- Komedoreak egitura aldetik zer moduz daude?

- Ondo dago, denok kabitzen gara eta gainera zerbitzariak eta sukaldariso onak dira.

eman behar diegu erregimenean bait daude, baina gero ordu laurdenean bazkaltzen dute eta berehala Tartufoa kafea barizera joaten dira". Hemengo jangela subkontratatua dago, langileek 200 pezeta balio bono bat erosten dute eta gero Marijek Enpresari aurkezten dizkion bonoaren arabera ordaintzen du enpresak. Egunero 90 langilek bazkaltzen dute, baina erreleboka hasten direnean jende kopurua igoten da.

Antzuolako Matz Errekan komedoretan egunero 54 pertsona biltzen dira. Bazkariagatik langile bakoitzak 125 pza. ordaintzen ditu eta beste gastuak enpresak ordaintzen ditu. Sukaldari bakar bat dute, Aurora Sanchez, eta plater bakarra jaten dute, kafea menuan ez da sartzen.

Dikar lantegiak ere badu bere jangela, hemen egunero 65 langilek bazkaltzen dute eta menua 300 pza. izaten da. Sukaldari bakarra dute eta menuaren zati bat enpresak ordaintzen du.

Tabernetan eguneko menua

Tabernetara ere jende ugari hurbiltzen da bazkaltzera, baina batez ere kanpoko jendea eta Bergaran lanen bat egiteko daudenak: kamioneroak, montadoreak, biadjenteak... e.a.

Menuen prezioak taberna gehienetan 600 pezetatatik 900 pezetatara bitartekoak dira. Tabernariaren esanertan eguneroko menuarekin ez da dirurik ateratzen, bizitzeko lain ematen duen arren. Eguneroko menua jaten dutenen kopurua jeitsiz doa eta horretan krisiaren eragina nabari da.



Pilar Umerez

Altos Hornoseko sukaldaria

Pilar Umerez 33 urte Altos Hornoseko langileel bazkaria ematen

- Nola portatzen dira langileak?

- Hemengo langileak oso jatorrak dira, guk asko maite diegu eta etxean mo-

duan senti daitezen ahaleginak egiten ditugu.

- Langileek, ze plater dute gustokoen?

- Neguan baba gorriak dira estimatuena, baina udan arroza eta entsaladak dira gehien gustatzen zaiena. Gu beti saiatzen gara jate-txetara joaten garenean gau-

zak nola egiten diren ikusten. Baina gehienbat gure esperientzia erabiltzen dugu.

- Zenbat ordu egiten duzue lan?

- Goizez 8retan sartzen gara eta arratsaldeko 4retan irtetzen gara. Orain 3 langile gaude, baina hasi ginenean 16 edo 18 geunden. Lehen 3 errelebo zauden eta gosaltzera, bazkaltzera eta afaltzera etortzen ziren. Gainera lehen dena eskuz egiten genuen gaur egun, berriz, makinak ditugu eta lana erraztu egiten da.

- Menu aldetik aldatuak izan da?

- Ez, baina orain enpresak diru gehiago jartzen duenez, langileei gauza hobekak eta barietate handiagokoak eskeintzen dizkiegu.

Enara eta Maite

Egunero ikastolako komedorera


Enara Alberdi 9 urte eta Maite Jauregi 11 urte.

Enarak eta Maitek Aranzadi ikastolako komedoretan bazkaltzen dute eta Pilarrek, sukaldaria, esan digun moduan "bi hauek hona etortzen diren artean jatunenak dira". Enarak esan digunez "gehien gustatzen zaidan bazkariak arroza eta fritoak dira, baina letxuga ez zait batere gustatzen". Enara 6 urte zituenetik ari da baz-

kaltzen komedorean. Maitek 11 urte ditu eta danetik jaten du "nik danetik jaten dut,

baina beste batzuk oso mizkinak dira eta Pilar berarekin haserretu egiten eta jatera behartzen die". Maitek 3 urte daramatza komedorean bazkaltzen eta gustora dago "hemen ondo jaten dugu, baina etxean hobeto"





APPÉNIÉ

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI



**DEBA
GARAIA**

**INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA**

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80
☎ 76 06 37

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

**Zer eritzi daukazu kartel eta
pintadei buruz?**



Nerea Zubimendi
23 urte, langilea

Ez dabe oso polita egiten baina manifestatzeko modu bat da.



Iosu Aizpiri
19 urte, ikaslea

Toki bereziren bat egon beharko litzateke hortarako. Nahiz eta batzutan ondo etorri...



Cesar Cebrian
43 urte, langilea

Leku egokian egon ezkeru ondo pentsatzen zait baina ez kristal eta fatxadetan.



Lucia Farras
66 urte, etxekoandrea

Neretako gaizki daude pareten kalterako direlako. Panel batzuk jarri beharko lirateke.

Araba
Etorbidea, 4
20500
ARRASTAE



79 01 32
79 65 54

HIZKUNTZA ZENTROA

**PROFESIONAL, ENPRESARI ETA EJEKUTIBOENTZAKO
IKASTAROAK, INGELESEAN ERABAT MURGILTZEKO.**

- Barne ikastaroak
- Talde txikiak
- Irakasle iaioak

TOKIA: Arantzazu

EGUNAK: Martxoaren 1etik 7ra

Izena emateko epea otsailaren 15era arte.



Alcasser

Alcasser herrian gertatu den kasu penagarri eta zori-tzarreko horrek zenbait gai polemiko jarri ditu mahai gainean, guztiak luze eztabaidatzekoak gainera. Luza-tzeko modurik ez dago lerro hauetan, baina batzuk aipa-tuko ditugu. Batetik hasi behar, eta lehenbizi komunikabi-deek izan duten jokaera hartuko dugu gaitzat. Asko hitze-gin da, eta horrenbeste idatzi, kasu honi komunikabideek ematen dioten tratamenduaz, eta gehienetan txarrerako. Hankasartze ugari egon da, hori egia da, eta kasu konkretu batzuetan etika guztiak aipatu dira, baina inolaz ere ezin da orokorrean hitz egin, egin den bezalaxe.

Heriotz zigorra, hori ere eskatu da sektore desberdi-netatik hiru neskatoen gorpuak azaldu zirenetik. Nahiz eta gertatutakoa gogorra izan, horrelako momentutan ezin da eztabaida hori piztu, piztu behar baldin bada behintzat. Eta polemika guzti honen barruan epaileak ere ez dira baztertuta gelditu, presoei ematen zaizkien bai-menak direla medio. Hitz gogorak erabili ondoren, baimen horiek oso neurri inportantean murriztu egingo direla erabaki du administrazioak. Hori al da konponbidea hain larria den arazo honentzako konponbidea? Ez. Kodigoa goitik behera aldatu behar baldin bada eta kartzel-zigorrek errebisatu behar baldin badira... ba hortik hasi, hasieratik.

Ane Miren Lizarralde



Ez adarrik jo

Euskal gizartearen arazoetako bat, guztiak gaztelera-z dakigun bitartean, euskaraz batzuek bakarrik jakitea da. Erdaldun horiek, Euskal Herrian bizi direnez gero, euskal mundura hurbildu behar ditugu. Eta euskara jakin arren, gaztelera erabiltzen dutenak kontzientziaztea ere beharrezkoa da. Herrian ere gauza berbera gertatzen da. Ikerketa ezberdinen arabera gehiengo euskalduna da Bergaran. Baina umeak eta zaharrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Gazte eta helduek gehienetan gazte-lerrara jotzen omen dugu.

Euskaraz bizi nahi dugunontzat, egoera honi buelta emateko egiten diren ahalegin guztiak gutxi dira. Beraz, ez dago ondo, aurreko Gabonetan alkatearen aginduz Euskal Herrian Euskaraz taldearen taberna ixtea. EHEk kultur hamabostaldia antolatu zuen. Tabernak, euskararen aldeko ekitaldiak burutzeko dirua emateaz gain, kontzientziaztea lan garrantzitsua beteko zuen, bertan sartutako jendeak euskara erabiltzera jo bait dezake. Beraz, honelako jokabideekin ez dago egoerari buelta ematerik. Beti izan dira euskararen aldeko ekintza sinbolikoak baina ez dute balio. Benetan, egunero eta arlo guztietan bultzatu behar da, euskararen aurkako erabakirik hartu gabe. Eta Udalak bi behintzat hartu ditu. Batetik urtean 4, 5, 7, 10, 15..., pertsona euskalduntzen zituen AEKri laguntzarik ez ematea, eskola itota itxi zen arte, eta EHEk Gabonetan jasandako erasoak bestetik.

Jon Altuna

*Berogailu, gas eta
iturgintza azterlanak*


Bainu diseinaketa

ZABETX
INSTALAZIOAK

Mahasterreka 14, Tfnoa: 76 54 14. BERGARA



BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14



JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

KIZKUR



Heapaindegia
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

Aldoka Maldoka TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

BERGARA

Karrozeria

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

-Taberna Kafetegia

EHIZTARIAK

LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, BERGARA

LARRAÑAGA eta ZUBIA

Banatzailleak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594



☐ Elgetako himnoa lantzen

Alfredo Gonzalez Chirlaque Udal Musika Bandako zuzendaria eta Valen Moñux Orfeoiko kidea Elgetako himnoa lantzen ari dira bertako Udalaren enkarguz. Abenduan jaso zuten berau lantzeko proposamena eta uztail hasieran ospatuko diren Elgetako jaietan aurkezteko asmoa dago, Bergarako Orkestra, Orfeoia eta Elgetan osatu berri den abesbatzaren eskutik. Alfredo musika konposatzeaz arduratuko da eta Valenek, berriz, letra idatzi du. Azken honen esanetan, "usoaren irudia da letraren ardatz nagusia, bertako sinbolotzat har daitekeelako harmarriaren zenbait berridazketan ikusten den bezala. Elgeta usoa bizi den kabia bezala uler daiteke eta, era berean, gerra jasan ondoren, bakean bizi nahi duen herriaren ideia igorri nahi dugu". Alfredo Gonzalezek zortzikotan egindako euskal tematikako musika landuko du eta bion ustez, "kantatzeko erreza izango da". Elgetarrok, ahotsak argitzen hasi...

ITURKINTZA



ITURKINTZA

ARISTEGI - TOLA

ITURKINTZA - BEROGAILUAK - GASA

Bolu, 26 behea ☎ 76 54 17




□ **Jose Lazkano omendua**

Larunbat goizean **Jose Lazkanok** Aritzeta abesbatzaren omenaldia jaso zuen Altzasu elkartearen. Jende ugari bildu zen bertan, Jose Lazkanoren senitarteakoak tartean, azken urteotan musikaren alde eginiko lana eskertzeko. Elusun meza entzun ondoren, 70 lagun inguru bildu ziren Altzasun bazkaltzeko eta, ondoren, **Agustin Badiola** Aritzetako presidenteak plaka origarri bat eskeini zion. Imajinatzen dugu, hainbeste musikazale izanda, kanturen bat ere oparituko ziotela..

□ **Euskararen logotipoa**

Abel de Zerio 44 urteko irakasle eta kulturetore bergararrak irabazi du Udaleko **Euskara Batzordeak** konbokatutako logotipo lehiaketa. Aurkeztutako lanen artean, Epaimahaiak Xabierrena aukeratu zuen aurrerantzean Euskara Batzordea bazkaltzeko. 50.000 pta.ko saria jasoko du De Zerioek behean ikus dezakeuzuen lanagatik.



Ezkerrean, logotipo irabazlea eta goian egilea.



Zertan dihardute ba?

JOSE MARI MARZANA



Jose Mari Marzana "Arientza" 53 urteko probalari angiozartarra lehena izan zen Abadiñoko San Blas Idi-proba Txapelketan, 225.000 pta., trofeoa, manta eta txapela eskuratuz.

ASIER ZIARSOLO



Orain arte senior gizonetzkoen saskibaloitaldeko 2. entrenatzaile postua betetzen zuen 24 urteko bergarar honek taldea utzi nahi izan duen Txiki Oiarzabal ordezkaturako du taldearen zuzendaritzan.

**PELI NARBAIZA
IBARZABAL**



Mutua General de Seguros

Agentea Bergaran

Aseguru orokorrak

Matxiategi, 3 - 5.B BERGARA ☎ 76 47 57

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5

☎ 76 10 57

BERGARA

Umore giroan

Konfusiño aundixa

Plaentxiar bat sartu da tabernan bere alabatuakin, eta aurrez-aurre ikusi dau futboleko kartel bat: Baracaldo eta Osasunaren "erresultatuak". Itxura denez "corto de vista" zan eta au irakurri zeban: Baracalao, 3 - Aceituna, 1. Aren poza lau pesetako merkealdia ikusi zebanian! Eskatu dau bakallau razifua beretzat eta alabatoarentzat azeitunak. Ordaintzerakuan, neskamiak difotsa:


- Kontua, 17 peseta da.
 - Zelan baiña, diño plaentxiarrak, kartelian eztau ori ipintzen.
- Kartelian ipintzen zebana au zan: Baracaldo, 3 - Osasuna, 1

Ugenio biajantia

Bein batian, "biajantiak" urteroko anai-arteko afarixa eukela eta, deitu zetsen Ugeniori afaltzera joateko. Ugenio juan eziñ, orde. Eta bere erantzuna.

- Ara, egixa dok medikuak 25 urterako bizitza gutxienenz emoten destela, baiñan etxeztek ibiltzen erakusten. Orregaitxik, barkatu, baiña ezingonok etorri gure afarira.

Pedro Zelaia



Santa Marina Bideberritik ikusito

ORAIN DELA...

Eskolentzako telebistak

Umerik gehien dituzten eskolentan telebisio eskolarreko eguneroko programak ikusi ahal izan ditzaten, Promoción Cultural Vergaresa elkarteak bi telebista berri eman dizkie Compañía de Mariako edifizio berrian dauden neskentzako eskola


nazionaletakoei eta Alhondigako eskola nazionaletakoei. Horrenbestez, herrian ikaslerik gehien dituzten 3 eskolek badaukate telebisioa, goiko plazako graduatuen eskolari Enseñantza Primariako inspektzioak eman zion lehen eta.

Santa Marinako obren inaugurazioa

Eliza bete-bete zela eman zen Santa Marinako altare berriaren konsagrazioa eta obren inaugurazioa ospatzeko meza. Meza-emalea Don Zenon Aranburu izan zen, Wuhuko gotzaia, eta bederatzi abade izan zituen laguntzaile. Don

Buenabentura parrokoak emozioz beterik, euskaraz eta erdaraz, bere eskerrik beroenak eman zizkien eliztarrei eta Bergarako Orfeoiak eta jarraian herritarrek zoragarri kantatu zuten González Bastida jaunarekin euskarazko meza.

(Aste honetan 25 urte)



Gaspar

Jatetxea, Txokolategia,
Self Service-a

Barrenkale 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

Etxearen goxotasuna bere barnean dago

San Miguel E. A.

San Lorenzo, 4
☎ 76 47 90
☎ 76 01 15

Isolatu zeure etxea
hotz eta zaraten kontra

ISOVER

TOKI-EDER

Taberna

Pintxoak eta eguneko
bazkariak


Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84



Zumelaga

JATETXEA

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66

GALDE DEBALDE

JOSU ARANA

Begarako Igarlleku Munizipalak, barruko pizinak,
1972ko uztailaren 31an Inauguratu zituzten, Luis
Laskurain alkate zela.

JOSU ARANA suertatu da aste honetako irabazlea,
berarendako, beraz, Zumelaga Jatetxeak emandako saria.
ZORIONAK !!

**Eta besteok segi asmatzen, bila dabillanak topatu
egiten du eta! Animo!!**




HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4. 76 37 53

**Elektragailuak, TB,
bideoak, HIFI
aparailuak.**




Matxiategi, 3. 76 12 22

Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



JOSU ARANAK jaso du aste honetan ZUMELAGA JATETXE Akemandako saria.



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66

Hurrengo Galde Debaldeko saria ARGAZKIk emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Autopistak, autobideak, abiadura haundiko trenak eta abarrek nahiko zarata ateratzen dihardute azken aldi honetan, eta hori egin aurretik! Dena dela bide horietako bat, hau da, Beasain Durango autobideari dagokion Epele errekatik zehar doan zatia, egiten dihardute azkar baino aguroago. Bide hau Bergara eta Arrasateko muga egiten duen erreka honen albotik doa, horretarako bi baserri etxe bota behar dituztelarik, bata Arrasate partean, Zeleta baserria, eta bestea Bergara aldean.

Zein da Bergara aldetik bota behar duten baserri dotore honen izena?



izena

abizena

telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

Krosa

Ainize Gomez de Segura 9. heldu zen astebukaeran Ordizian jokaturako Gipuzkoako Kros Txapelketako alebinen proban, Gipuzkoako Pista Txapelketako 1.000 m.ko probarako minimoa lortuz. Udaltzaile Zerbitzuko atletismo eskolako astelehen, asteazken eta larunbatetan egiten dituen entrenamendu saioak eta neska-mutilentzat (8-16 urte) zabalik dago.

Pelota

Muruamendiaraz eta Gutierrez bergarar pelotariak 22 eta leku emaitzaz irabazizioten Amurrioko bikoteari, igandean Bergaran jokaturako Euskal Ligaren lehendabiziko partiduan.

JUANJO ARIZMENDI: "Bertako ekipo bat egin nahi dugu"

Alex Garitanok Bergara K.E.ko presidentzia utziko du aurten. Denboraldi amaieran egingo den batzarrean, Juanjo Arizmendik bultzatutako taldea azalduko da erreleboa hartzeko prest.



- Talde hori guztiz eratuta al dago?

- Zenbait jende direktiba osatzeko prest etorri zait eta interes handia ikusi dut jendearen aldetik. Orain talde hori zuzenduko lukeen pertsonaren bila gabiltza.

- Zein litzateke pertsona horren erretrato robota?

- Ez da beharrezkoa kirolean aditua izatea.

Lanerako gogoia eduki eta jostore on bat bada, askoz hobe. Futbolaz gain, beste sailekin eta Udalarekin adibidez harreman onak izaten jakin dezala.

- Beste sailak bultzatzeko asmoa al dago?

- Gure ideia hori da baina presupuestoak gero eta altuagoak dira eta nekeza da guztien eskakizunak betetzea. Hortan ahalegindu eta batez ere

oraingo erlazioak hobetu nahi ditugu.

- Diru iturriak handitu beharko dira...

- Horretarako ahalik eta diru gehien atera behar dugu orain baztertuta dauden bide batzuetatik, publizitatea adibidez. Hori landu eta 1.000 bazkide izatera helduko bagina, fenomeno.

- Futboleko fitxajeak egitearen aldekoa zara?

- Ez, bertako jendea eta Aloña Mendin diren bergararrek talde majoa osa daiteke. Kanpoko bizpahiru fitxajerekin nahikoa da.

- Zein izango da lehendabiziko betebeharra?

- Ba direktiba osatu, preferenteko taldea planifikatu, entrenadore ezberdinekin egon eta batzorde tekniko bat sortu. Hortik aurrera, lan egin.

Primerako partidua

Ikusmin handia sortu du Urionaguena eta Galarza III.ak Etxaniz eta Zezeagaren aurka larunbatean (ETB, 4retan) jokaturako duten pelota partidua. Bi bikoteek ez dute oraindik partidurik galdu ohizko enpresen binakako txapelketan eta larunbatean irabazten duenak finalean egoteko urrats inportante bat beteko du. Lau pelotariak asteazkenean egin zuten material aukeraketa eta guztiak pozik agertu ziren bihar izango duten materialarekin. Galarzak eta Urionaguenak nahiago izan zituzten pelota biziagoak.



BOLINTXO
Kirola egiteko behar den guztia
 Ibargarai 10,
 ☎ 76 38 32

Mujika
Jantzidenda
 Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

LILURA
EDERTZE INSTITUTUA
 Bidekurutzeta, 7
 ☎ 76 31 71
 BERGARA



Begarako Seminarioko ikasleak. 1932. urtea

Fray Manex Luis de Gomara, irakasle famatua izan omen zen Bergaran gerra aurretiko hartan. Seminarioko fraile legoa zen eta oinarrizko heziketako eta batxillerreko klaseak ematen zituen. Hemen agertzen diren hauek bere ikasleak izan ziren Gerra denporararte, Gerrarekin eskola itxi eta Seminarioa apaizgaitegi bihurtu baitzen.

Hara zeintzu diren garai hartan dozena bat urte inguru zituzten mutikoteak:

Gorengo ilaran: Lorentzo Garitano, Paulo Gabilondo (G. B.), Luis Garmendia (G. B.), Joseba Laborda (G. B.), Aurelio Bilbao, Mitxelena (G. B.), Saturnino Arribas (G. B.), Arrieta (G. B.) eta Bixente Murgoitio.

Erdiko ilaran: Eustakio Iturbe (G. B.), Julian Zelaia (G. B.), Martin Arriaran (G. B.), Angel Iturbe (G. B.), Jesus Igartua (G. B.), Felipe Agirregabiria (G. B.), Andres Egaña, Miguel Gonzalez Bastida, Jose Maria Iñarra, Jesus Iturbe, Matias Atorrasagasti, Andres Agirre eta Felix Laskurain.

Eserita: Tomas Lasa, Sebastian Aranguren, Patrizio Arribas (G. B.), Jesus Larrañaga, Bitorio Bilbao, Genaro Suinaga, Jeronimo Orbe (G. B.), Bixente Okina, Ramon Uriarte, Higinio Agirre (G. B.) eta Andoni Lazpiur.

*Estepan Plazaola
Argazkia: Felix Laskurain.*

MEMESA

IRIMO

SKF

phantom

Arrasate 79 42 22

Artxabaleta

ETXEBIZITZA

Pisua alokatzen da Mariaren Lagundiaren parean. ☎ 76 56 13 (gauzez).

Neska bat behar da Donostian pisua konpartitzeko. ☎ 76 19 29.

Garaje bikoitza alokairuan Burdiñaten. ☎ 76 57 69/76 13 23.

Arrizurin garajea salgai. ☎ 74 30 55/ 74 43 19

Jacan etxe bat aiokatzten da. ☎ 73 07 60. Be-goña. (gauzez).

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauzez.

Garajea salgai Santa Marinan. ☎ 76 32 70.

Garajea salgai Martokuan. Erosoa. ☎ 76 46 95.

Pisua salgai Zurradero 2.ean. ☎ 76 53 30 (gauzez).

Garajea salgai Urrats taberna azpian. ☎ 76 57 93.

Pisua salgai Artzamendin muebleekin edo mueblegabe. ☎ 76 40 82 (6etatik aurrera).

Pisua salgai Martokuan. 80 metro karratu. ☎ 76 14 13 (gauzez).

Garajea salgai Torrekuan. ☎ 76 16 51.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.

Pisu edo buardilla bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 58 37.

SALDU-EROSI

Peavy 100 watts bi anpli salgai. Biak 100.000 pezetatan (bat 60.000). ☎ 76 10 34.

Bateria salgai. ☎ 76 47 07 (Richar).

Kotxea salgai. SS-P. 75.000pzta. ☎ 76 53 59.

Oinarrizko Heziketa Orokorra, U.B.I., B.B.B. eta Lanbide Heziketako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 76 44 34 (Amaia)

SS-4252-P matrikuladun Ford Scort 1.600 kotxea salgai. ☎ 76 50 18.

Skiko Koflach-Valuga botak erosiko nituzke. ☎ 76 05 92 (Jose Angel).

Ileapaindegi eta estetika aparailuak salgai. Egoera onean. ☎ 76 32 12.

Kanowey moto bat salgai (49.9 zm3). Egoera onean (90.000 pta.). ☎ 76 12 99.

Etxeko gela bikoitze bateko altzariak salgai. Egoera onean. ☎ 76 18 61.

ZANUSSI garbigailua salgai. ☎ 78 34 16.

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 35 50 (gauzez) edota 79 82 10 (egunez).

Garbigailua oparitzen dut. ☎ 76 03 73.

Lau MSX joku salgai. ☎ 76 59 47 (David).

Etxean barruko atek aldatzeko asmotan baldin bazaude ez itzazu bota, gustora hartuko ditut eta. ☎ 76 40 54 (gauzez).

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 32 51.

Softwarea 2.400 BPS modema salgai. Berri-berria. Prezioa interesgarria. ☎ 76 51 62.

Super Mario 3 jokua duen Nintendo bat salgai. ☎ 76 58 93 (Unai).

SEGA Megadrivea salgai. (8 jokurekin). 35.000 pza. ☎ 76 45 21 (Jabii).

LANA

AutoCAD, FP2 Informatikan praktketan lan egingo nuke. ☎ 73 33 42.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Itzulpen eta Interprete lanak egingo nituzke. (Ingelesa zein alemana) ☎ 76 46 54.

Neska batek etxeko lanak egin edota umeak zainduko lituzke. ☎ 76 60 65.

Hildakoak

- Josefa Permuy Blanco* otsailak 5, 89 urte
- Rufino Elgarresta Larrañaga* otsailak 6, 80 urte
- Ramona Alberdi Zabaleta* otsailak 9, 94 urte
- Joakin Alberdi Anduaga* otsailak 9, 66 urte

Jaiotakoak

- Pello Alfaro Ugarteburu* urt. 30
- Yeray Juaristi Fernandez* urt. 30
- Mikel Aginagalde Bastardo* ots. 2
- Mireia Larrañaga Llamas* ots. 2
- Miguel Angel Fernandez Lasberas* ots. 5
- Nerea Zenekorta Alonso* ots. 8
- Iosu Manso Elorza* ots. 9

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

ileapaindegia
eder gela

disdira


Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO
GARANTIA

MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Koldo Eleizalde, 8

BERGARA

☎ 76 00 00

